

GOBIERNO DE NAVARRA

**ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEO**

 CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

 DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroa % 1,5 hazi da 2014an, aurreko bi urteotako ziklo negatiboa gaindituz

Urte arteko datuetan, hazkunde erreala % 2,1 izan da, eta % 0,8 2014ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz

Viernes, 30 de enero de 2015

Nafarroako ekonomia % 1,5 hazi da 2014an; hala, bi urte jarraian izandako atzeraldiari (bigarren atzeraldia) amaiera eman zaio, lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea kontseilariak aurkeztutako laugarren hiruhilekoaren kontabilitateko aurrerapenaren [datu](#)en arabera.

Zifrek diote, gainera, % 0,8 hazi dela 2014ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuz eta, beraz, sei hiruhileko positibo izan direla bata bestearen atzetik, 2010. urtetik gertatzen ez zena. Jokabide ekonomikoaren gaineko erreferentzia hobea den urte arteko aldatetari dagokionez, iazko azken hiruhileko BPGd % 2,1 igo zen 2013ko aldi berarekin alderatuz.


Zifra horiek Espainiako ekonomiak izandakoak hamarren batean gainditzen dute; Espainiako hiruhileko hazkundea % 0,7 izan da, eta % 2 urte artekoa. Urte guztia aintzat hatuz, igoera % 1,4 izan da.

Goicoechea lehendakariordeak adierazi duenez, suspertze hori etorri da, eskaintzaren ikuspegitik, manufaktura-industriaren (+% 6,3) eta merkatuko zerbitzuen (+3,3%) adierazle onengatik, merkataritzza batez ere. Eskaeran, esportazioek (+% 7,9) eta etxeetako kontsumoak ekarri dute zabalkundea.

% 2ko hazkunde aurreikuspen da 2015erako

2015erako hazkunde-aurreikuspenetan, Lourdes Goicoecheak adierazi duenez, neurrizko baikortasuna dago, eta honako hauei lotuta izango dela uste du: hazkunde amerikarra, petrolioaren prezioaren beherakada eta banku zentral nagusiak haztearen aldeko diru-politiken jarraipena.

Testuinguru horretan, Espainiako ekonomia % 2 haziko dela aurreikuspen da, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) nahiz Ekonomia eta



Lehiakortasuneko Ministerioak egindako iragarpenen arabera. Nafarroari dagokionez, lehendakariordeak % 2koa izatea ere aurreikusten du; hala diote BBVAK, Caja Laboral-Euskadiko Kutxak eta Merkataritza Ganberak egindako kalkuluek, eta agian zertxobait handiagoa izatea ere.

```
<object width="500" height="375"><param name="allowfullscreen" value="true" /><param name="allowscriptaccess" value="always" /><param name="movie" value="http://vimeo.com/moogaloop.swf?clip\_id=118238050&show\_byline=0&show\_portrait=0&force\_embed=vimeo.com&fullscreen=1" /><embed src="http://vimeo.com/moogaloop.swf?clip\_id=118238050&show\_byline=0&show\_portrait=0&force\_embed=vimeo.com&fullscreen=1" type="application/x-shockwave-flash" allowfullscreen="true" allowscriptaccess="always" width="500"
```